Astigarragako Udala
Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención
idazkaritza@astigarraga.net

# OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

**Bilera-zenbakia:** 2010IPLE0012
**Eguna:** 2010-12-23
**Ordua:** 10:00-11:00
**Tokia:** Areto nagusia

## Bertaratuak

| | |
|---|---|
| - Bixente Arrizabalaga Bengoetxea | HAMAIKABAT |
| - Juan Joxe Uranga Mendiburu | HAMAIKABAT |
| - Imanol Lizarralde Marín | HAMAIKABAT |
| - Eloy Bazan Bazan | HAMAIKABAT |
| - Zorione Etxezarraga Ortuondo | EAJ/PNV |
| - Mª Jesús Arruabarrena Izagirre | EAJ/PNV |
| - Ramón Aranzasti Loyarte | EAJ/PNV |
| - Carlos de la Peña Hornés | Ez atxikia |
| - Jose Manuel Herzog de Bustos | PP |

## Bertaratu ez direnak

| | |
|---|---|
| - David Franco Chavale | EB-B |
| - Jose Angel Sanchez Gallardo | PSE-EE |

## Idazkaria

- Xabin Olaizola Lasa

## Aztergaiak

| EGUNEKO AZTERGAIAK | Zk / Nº | ORDEN DEL DIA |
|---|---|---|
| **2010eko urriaren 28ko eta azaroaren 25eko akten onarpena** | 1 | Aprobación de las actas de 28 de octubre y 25 de noviembre de 2010 |
| **Eginiko Dekretuen berri ematea** | 2 | Dar cuenta de los Decretos emitidos |
| **Kiroldegiaren administrazio-emakida baliogabetzeko proposamena** | 3 | Propuesta de cancelación de la concesión administrativa del Polideportivo |
| **2011ko Zerga Ordenantzak. Alegazioen ebazpena** | 4 | Ordenanzas Fiscales 2011. Resolución alegaciones |

| | | |
|---|---|---|
| **Kultur Etxerako proposamena hautatzeko administrazio-klausula partikularren eta preskripzio teknikoen plegua** | **5** | Pliego cláusulas administrativas particulares y prescripciones técnicas para la selección de propuesta Casa de Cultura |
| **8/2010 Errege Dekretu Legea. Soldata-jaitsiera** | **6** | Real Decreto Ley 8/2010. Reducción salarial |

## Esan-eginak eta erabakiak

1. **<u>2010eko urriaren 28 eta azaroaren 25eko akten onarpena</u>**

Urriaren 28ko akta zinegotzi guztien aldeko botoarekin onartu da, aurkako botoa eman duen zinegotzi ez atxikiaren botoarekin izan ezik.

Azaroaren 25eko akta zinegotzi guztien aldeko botoarekin onartu da, zinegotzi ez atxikiaren eta Zorione Etxezarraga zinegotziaren botoekin izan ezik (lehenak aurkako botoa eman du, eta bigarrena abstenitu egin da, ez baitzuen bilkura hartan parte hartu).

1. **<u>Aprobación de las actas de 28 de octubre y 25 de noviembre de 2010</u>**

El acta de 28 de octubre se aprueba con el voto a favor de todos los concejales excepto del concejal no adscrito que vota en contra.

El acta de 25 de noviembre se aprueba con el voto a favor de todos los concejales excepto del concejal no adscrito que vota en contra y la concejal Zorione Etxezarraga que se abstiene porque no participó en la sesión..

2. **<u>Eginiko Dekretuen berri ematea</u>**

Alkateak 1130. zenbakira bitarteko Dekretuen zerrenda aurkeztu du.

2. **<u>Dar cuenta de los Decretos emitidos</u>**

El Alcalde presenta la relación de Decretos emitidos hasta el número 1130.

3. **<u>Kiroldegiaren administrazio-emakida baliogabetzeko proposamena</u>**

Ogasun Batzordeak Kiroldegiaren administrazio-emakidaren baliogabetzeari dagokionez emandako irizpena aurkeztu du alkateak. Honako erabaki hau hartzea proposatzen da bertan:

1996ko abenduaren 20an lurrazal-eskubidea eratzeko sinatutako eskrituran

3. **<u>Propuesta de cancelación de la concesión administrativa del Polideportivo</u>**

El Alcalde presenta el dictamen de la Comisión de Hacienda en relación a la cancelación de la concesión administrativa del Polideportivo, en la que se propone la adopción del siguiente acuerdo:
Cancelar la concesión de prórroga

ezartzen den luzapen-emakida baliogabetzea, eta Astigarraga Lantzen, SA enpresari kontabilitate-balio garbiaren berdina (1.714.347,00 € 2010eko abenduaren 31n) izango den kalte-ordaina ematea. Kalte-ordain hori sozietateak Udalarekin duen zorraren zati bat kitatzean aplikatuko da.

contemplada en la escritura de constitución de Derecho de Superficie firmada con fecha 20 de diciembre de 1996, pagando a Astigarraga Lantzen, S.A., una indemnización igual al Valor Neto Contable del Polideportivo que a 31 de diciembre de 2010 ascenderá a 1.714.347, 00 € y que se aplicará a la cancelación parcial de la deuda que dicha sociedad tiene con el Ayuntamiento.

Osoko Bilkurako kideek aurkeztutako irizpena onartzea erabaki dute aldeko 8 botorekin eta zinegotzi ez atxikiaren abstentzioarekin.

Los miembros del Pleno, con los 8 votos a favor y 1 voto de abstención del concejal no adscrito acuerdan aprobar el dictamen presentado.

Zinegotzi ez atxikiak adierazi duenez, gai hori aztertzeko astirik egon ez delako abstenitu da.

Señala el concejal no adscrito que se ha abstenido porque ha habido poco tiempo para estudiar este tema.

Proposamen hori Astigarraga Lantzen SA enpresako Saneamendu Planaren lehen zatia dela eta z&Consultores enpresa idazten ari dela adierazi du Ogasun Batzordeko presidenteak; ondorioz, abenduaren 31n Udalari eskualdatuko diogu kiroldegia. Izan ere, 2010eko urtarrilaren 1etik Astigarraga Lantzen SA enpresak ez darama kirol-gestioa, hori udalak berak hartu baitzuen bere gain egun horretan.

El Presidente de la Comisión de Hacienda indica que esta propuesta compone la primera parte del Plan de Saneamiento de Astigarraga Lantzen S.A. y que está redactando la empresa z&Consultores, con lo que a 31 de diciembre materializaremos el traspaso del Polideportivo al Ayuntamiento, dado que desde el 1 de enero de 2010 Astigarraga Lantzen S.A no lleva la gestión deportiva que fue asumida en dicha fecha por el propio Ayuntamiento.

Alkateak hartu du hitza, eta urtarrilean Lantzenen Saneamendu Planarekin jarraituko dela adierazi du. Jarduera, funtsean, Zakurmendegiko kudeaketan eta hirigintza-kudeaketan eta hirigintza-sustapenean oinarrituko da, estatutuetan zehaztu bezala. Udalaren nahia beti izan da sozietate hori autofinantzatzea, baina Zakurmendegiko garapena korapilatu egin zen, eta lehiaketa hutsik geratu zen. Beste bilkura batean emango dira horren xehetasunak.

Interviene el Alcalde quien manifiesta que a lo largo del mes de enero se continuará con la elaboración del Plan de Saneamiento de Lantzen, en la que su actividad se centrará fundamentalmente en la gestión de Zakurmendegi y la gestión y promoción urbanística tal y como definen sus estatutos.El Ayuntamiento siempre ha deseado que dicha sociedad se autofinancie pero el desarrollo de Zakurmendegi se complicó quedando el concurso desierto. En un próximo consejo se dará detalle del mismo.

4. **2011ko Zerga Ordenantzak. Alegazioen ebazpena**

Ogasun Batzordeak 2011ko Zerga Ordenantzen inguruko alegazioei dagokienez emandako irizpena aurkeztu du alkateak. Honako hau proposatzen da bertan:

Udaleko idazkariak egindako alegazioa onartzea, PSE-EEko zinegotziak egindakoa ezestea, eta erantsitako horrekin 2011ko Zerga Ordenantzak behin betiko argitaratzea.

Osoko Bilkurako kideek aurkeztutako irizpena onartzea erabaki dute aldeko 8 botorekin eta zinegotzi ez atxikiaren abstentzioarekin.
.
Osoko Bilkurako kideek aurkeztutako irizpena onartzea erabaki dute aldeko 8 botorekin eta zinegotzi ez atxikiaren abstentzioarekin.

Zinegotzi ez atxikiak adierazi duenez, udal-taldeei aurretik alegazioetarako aldi bat eman ez zitzaielako eman du aurkako botoa, Udalak herritarrentzat informazioa jendaurrean jartzeko aldia alde batera utzita.

Alkateak adierazi duenez, zerga-ordenantzak bidezko Ogasun Batzordean aztertu ziren, eta Udal Osoko Bilkurak 2010-10-28ko bilkuran eman zien hasierako onarpena. Azaroaren 9an, GAOn argitaratu ziren, eta informazioa jendaurrean jartzeko aldi bati hasiera eman zitzaion 30 eguneko epearekin. Aldi horretan, zinegotzi ez atxikiak ez zuen alegaziorik eta erreklamaziorik aurkeztu.

4. **Ordenanzas Fiscales 2011. Resolución alegaciones**

El Alcalde presenta el dictamen de la Comisión de Hacienda en relación a las alegaciones sobre las Ordenanzas Fiscales 2011, en el que se propone:

Aceptar la alegación formulada por el Secretario municipal, desestimar la formulada por el concejal del PSE-EE y proceder con esta incorporación a la publicación definitiva de las Ordenanzas Fiscales 2011.

Los miembros del Pleno, con los 8 votos a favor y 1 voto de abstención del concejal no adscrito acuerdan aprobar el dictamen presentado
.
Los miembros del Pleno, con los 8 votos a favor y 1 voto de abstención del concejal no adscrito acuerdan aprobar el dictamen presentado.

El concejal no adscrito señala que ha votado en contra porque a los grupos municipales no se les abrió un período previo para alegaciones, al margen del período de información pública abierto por el Ayuntamiento a los vecinos.

El Alcalde señala que las ordenanzas fiscales se analizaron en la pertinente comisión de hacienda y posteriormente las aprobó inicialmente el pleno en la sesión de fecha 28-10-2010, con fecha 9 de noviembre se publicó en el BOG y se dio inicio a un período de información pública por el plazo de 30 dias, en las que el concejal no adscrito no presentó ninguna alegación ni reclamación.

5. **Kultur Etxerako proposamena hautatzeko administrazio-klausula**

5. **Pliego cláusulas administrativas particulares y prescripciones**

**partikularren eta preskripzio teknikoen plegua**

Ogasun Batzordeak Kultur Etxerako proposamena hautatzeko administrazio-klausula partikularren eta preskripzio teknikoen pleguaren onarpenari dagokionez emandako irizpena aurkeztu du alkateak.

Idazkariak adierazi du lehiaketaren balioespenaren garrantzia hobe orekatzeko xedearekin honako hau proposatzen dela:

**2010-12-23ko Osoko Bilkuran proposatutako eta onartutako aldaketa:**

Epaimahaiak balioetsitako egokitze arkitektonikoari lotuta metatutako 25 puntuekin eta partaidetzako beste 25 puntuekin, lehiaketaren garrantziaren % 50 diseinuari lotuta dago. Horregatik, 9. eta 11. artikuluak aldatzea eta puntuazioa honela zehaztea proposatzen da:

Partaidetzarengatik bozkatutako proiektuak:
1.- 25 puntu.
2.- 15 puntu
3.- 5 puntu

Epaimahaiaren puntuak:
1.- Tokiaren egokitzea: 25 puntu.
2.- Mantentze-kostuen arrazionalizazioa: 25 puntu.
3.- Kalitate teknikoa, egokitze arkitektonikoa: 20 puntu.
4.- Energia-eraginkortasuna: 5 puntu.

Proposatutako aldaketa jasota, irizpena bozkatzeko eskatu du alkateak, eta Osoko Bilkurako kideek proposatutako aldaketekin onartu dute irizpena, aldeko 8 botorekin eta zinegotzi ez atxikiaren abstentzioarekin; horrela, beraz, Kultur Etxe berriaren proiektua idatziko duen taldea hautatzeko lehiaketa arautuko

**técnicas para la selección de propuesta Casa de Cultura**

El Alcalde presenta el dictamen de la Comisión de Hacienda en relación a la aprobación del pliego de cláusulas administrativas particulares y prescripciones técnicas para la selección de propuesta de la Casa de Cultura.

El Secretario señala que al objeto de equilibrar mejor el peso de la valoración del concurso se propone

**Modificación propuesta en el Pleno de 23-12-2010 y aprobada:**

Dado que la acumulación de puntos relativos a la adecuación arquitéctonica valorada por el Jurado en 25 puntos +los 25 puntos de la participación hacen que el peso del concurso se centre un 50% en el diseño se propone la modificación de los art.9, y 11, concretando la puntuación de este modo:

Proyectos votados por la participación:
1º.- 25 puntos.
2º.- 15 puntos
3º.- 5 puntos

Puntuación del Jurado:
1º.- Adecuación del espacio,..:25 puntos.
2º.- Racionalización de costos de mantenimiento:25 puntos.
3º.- Calidad técnica, adecuación arquitectónica: 20 puntos.
4º.- Eficiencia energética,..:5 puntos.

El Alcalde somete a votación el dictamen con la incorporación de la modificación propuesta, y los miembros del Pleno, con los 8 votos a favor y la abstención del concejal no adscrito aprueban el dictamen con las modificaciones propuestas, quedando así aprobadas lo pliegos y prescripciones que reguralán el

duten pleguak eta preskripzioak onartu dira.

Botoa azaltzerakoan zinegotzi ez atxikiak adierazi duenez, abstenitu egin da, eta ez du aurkako botoa eman partaidetza-prozesu bat hasi delako eta, funtsean, proiektuarekin ados dagoelako.

Eloy Bazán zinegotziak azaldu du ez dagoela formarekin ados, irizpenaren ondoren aldatzea proposatu baita.

PPko zinegotziak adierazi duenez, aldaketa horrek Batzordean –Herrikoiko ordezkari bat bertan zela– aurkeztu zen plegua ere aldatzen du.

Kultura Batzordeko presidenteak adierazi du Herrikoiren kezka ez zela Pleguaren edukiari buruzkoa, eremu horretako Plan Bereziaren edukiari buruzkoa baizik. Plegu horiek lantzen parte hartu duten guztiak zoriondu ditu.
Imanol Lizarralde zinegotziak adierazi du Kultur Etxe berriak oraingoaren arazoak konponduko dituela (irisgarritasun txarra, entzunareto eskasa eta abar.

concurso para la selección del equipo que redactará la nueva casa de cultura.

En la explicación de voto el concejal no adscrito indica que se ha abstenido y no ha votado en contra dado que se abre un proceso participativo y en esencia está de acuerdo con el proyecto.

El concejal Eloy Bazán manifiesta que no está conforme en la forma , por la modificación propuesta tras dictamen.

El concejal del PP indica que esta variación modifica el pliego que se presentó en la comisión en la que estuvo presente un representante de Herrikoi.

La presidente de la comisión de cultura indica que la preocupación de Herrikoi no iba en relación al contenido del Pliego sino que va referida al contenido del Plan Especial de esa área. Felicita a todos los que han tomado parte en la elaboración de estos pliegos.
El concejal Imanorl Lizarralde indica que la nueva Casa de Cultura resolverá los problemas que tiene la actual casa de cultura y que son la mala accesibilidad,auditoria escaso, ..

## 6. 8/2010 Errege Dekretu Legea. Soldata jaitsiera

EUDELek 8/2010 Errege Lege Dekretuaren inguruan egindako proposamenari lotuta Ogasun Batzordeak emandako irizpena aurkeztu du alkateak.

Osoko Bilkurako kideek EUDELek egindako proposamena onartu dute, aldeko 8 botorekin eta zinegotzi ez atxikiaren aurkako botoarekin.

Botoa azaltzerakoan PPko zinegotziak adierazi duenez, legeak betetzeko

## 6.- Real Decreto Ley 8/2010. Reducción salarial

El Alcalde presenta dictamen de la Comisión de Hacienda en relación a la propuesta formulada por EUDEL sobre el Real Decreto Ley 8/2010.

Los miembros del Pleno, con 8 votos a favor y voto en contra del concejal no adscrito aprueban la propuesta formulada por EUDEL.

En la explicación de voto el concejal del PP indica que ha votado a favor porque

direlako eman du aldeko botoa, eta gure seme-alabek ordaindu beharko dute, Zapatero txoriburuaren gaitasunik ezagatik.

Zinegotzi ez atxikiak adierazi duenez, dekretu hori negoziazio kolektiboaren aurka doalako, errekurtsoa jarrita dagoelako, bankuek eragindako krisia herriak ordaindu behar ez duelako, eta alderdiak egiten ari direna iraingarria eta lizuna delako eman du aurkako botoa.

las leyes son para cumplirlas, y que la incompetencia de un pato mareado que es Zapatero hará que nuestros hijos paguen por su falta de mérito y capacidad.

El concejal no adscrito indica que ha votado en contra dado que este decreto va en contra de la negociación colectiva,está recurrido,no tiene que pagar la crisis provocada por la banca el pueblo, es insultante,obsceno lo que están haciendo los partidos.

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarraga, 2011ko urtarrilaren 12a

**Xabin Olaizola Lasa**
**Idazkaria**